

KIMU 2018

GOGOETA



Arantxa Hirigoyen Iriarte

*« L'idée de l'Ecole et l'idée de Théâtre
sont une seule et même idée.
Elles sont nées ensemble.»*

Stanislavski

ESKEMA

Lehen hitzak

1. Antzerkia eta hezkuntza:

- Zer diote hiztegiek ?
- Eskola transmisio gune.

2. Antzerkia eta gazteak / nerabeak :

- Zer da haur-gazte publikoa ?
- Zergatik antzerkia eskolan ? Ekarpen ezberdinak.

3. *Ikusitako eta biziako esperientzien oihartzuna.*

- Gazteen lekua antzerki Festibaletan : Avignon eta La Mostra d'Igualada festibaletako adibideak.
- Baionako Etxepare Lizeoko proiektuak.

4. *Proiektua: antzerki udaleku egitasmoa.*

5. *Azken hitzak.*

6. *Gehigarria : « Le chemin du théâtre » Philippe Meirieuren testua.*

7. *Bibliografia.*

8. *KIMU programaren baitan eginiko formakuntzak eta ikusitako ikusgarrien zerrenda.*

LEHEN HITZAK :

Mila esker bederatzi hilabete hauetan bidelagun izan ditudan eta sustengatu nauten betiko adiskide eta lagun berriei.

Mila esker Etxepare Lizeoko antzerki tailerreko ikasleei, *gazteak eta antzerkia* uztarketa beharrezko egin eta egiten baitute, bizipen aberats eta ahanztezinak sortuz. Bide horretatik segitzeko gogoia eta beharra pizten baitidate urtez urte.

Eta azkenik, eskerrak bihotzez etxeko 5 artistei.

KIMU programari esker eramandako ibilbideak, bizitako esperientziak eta egindako gogoetak bere bide eginen dutelakoan.

I. ANTZERKIA ETA HEZKUNTZA :

Antzerkia eta hezkuntza : bi mundu. Elkarrengandik hurbiltzen edo urruntzen diren bi mundu. Elkar osagarri diren bi mundu. Batak bestea menperatu nahi duen bi mundu. Harreman konplexu bat, funtsezko galderak iradokitzen dituen bikote berezia.

Antzerkia baliabide bat edo xede bat ote da berez ? Artista parte-hartzaile soila edo ezinbestekoa ote da ? Antzerkiak eta Hezkuntzak zer harreman ote dute ? Mintza ote gaitzke Hezkuntza antzerkiak, antzerkiaren bidezko hezkuntzaz edo antzerkia *eta* hezkuntzaz ? Dударik ez da, antzerkia eta hezkuntzaren arteko harremana elkar eraikitzen ari dela etengabe, inguratzen duen gizarteari begira.

- **Zer diote hiztegiek ?**

- **Hezkuntza** : *ISCED-97aren arabera (International Standard Classification of Education), hezkuntzak «ikaskuntzaren beharrak aseko dituzten jarduera borondatezkoak nahiz sistematikoak hartzen ditu barne, herrialde batzuetan kultura- edo heziketa-jarduera deitzen dena ere hartuz. Emandako izena edozein izanda ere, kasu honetan hezkuntza komunikazio antolatua eta jarraitua da, eta ikaskuntza sustatzea du helburu».*
<http://eu.eustat.eus>

- **Antzerkia** : *(greziera klasikoz "theatron", θέατρον, edo "ikusteko lekua") arte eszenikoa da non publikoaren gainean istorioak kontatzen diren antzeppen baten bidez, hau da, hitzez eta imintziaz egindako ikuskizunaren bidez, batzuetan musikaz eta dantzaz lagunduta edo txotxongilo bezalako osagaiekin. Antzezanak arlo honetako egintzak dira eta zatika banatuta daude normalean, eta zati horietako bakoitzak ekitaldi, ekinaldi edo gertaldi izena hartzen du.*

<https://eu.wikipedia.org>

- **Antzerki** (etimologia) :

Obra de teatro. De *antz*- "imagen, figura".

Pièce de théâtre. De *antz*- "image, figure".

<http://projetbabel.org>

- **Teatroa / Théâtre** (etimologia) :

Du Latin "theatrum", et venant du grec "theatron", et du verbe "theasthai" signifiant "voir" "être témoin" et du suffixe "tron" ("τρον") dénotant un lieu, un endroit.

En grec le mot "thea" ("θεα"[1]) est "l'acte de regarder", c'est aussi "un objet de contemplation" et est aussi le "théâtre", le "lieu d'où l'on regarde". (Lié au "thaumaturge", du grec "thauma" le miracle).

Le "thêâtrum" latin vient ainsi du grec "théatron" [2] ("θέατρον") qui est le lieu de représentation.

- **Artea** : *Artea edo ertia errealitatea edo irudimena nolabait adierazteko giza ekintza da. Horretarako, askotariko tresnak erabili ohi dira, hala nola materia, irudia, soinua, gorputz-adierazpena eta abar, hartzailearen irudimena edota emozioa suspertzeko helburuarekin.*

<https://eu.wikipedia.org>

Emandako definizio eta azalpenen bidez, begi bistan gelditzen dira artea/antzerkia eta hezkuntzaren arteko lotura edo antzekotasunak. Bakoitza komunikazio ekintza mota bat izateaz gain,

giza ekintza ere bada errealitatea edo irudimena eta ikaskuntza bultzatzen baitute, biek ere. Irakasle/ikasle eta artista/ikusle bikoteak ez ote dira miraila baten oihartzun ?

2013. urtean frantziar Kultura eta Komunikazio ministroak Hezkuntza ibilbide artistiko eta kulturalak proposatu zituen (« *parcours d'éducation artistique et culturelle* »). Duela zenbait urte jadanik ibilbide proiektu horri buruzko gogoetak eta aipamenak egin baziren ere, ezagupen ofiziala erdietsi zuen, sarbide interesgarri bat proposatuz. Gaur egun, hainbat ikastetxek baliatzen dituzte delako ibilbide horiek. Alabaina, ene ustez, proiektu horiek ez dira oraino osoki egitura pedagogikoan txertatuak. Oraindik ez dakigu zer eragin eta ondorio izanen duten gisa bereko proiektuek ikasle/haur/gazteengan . Epe luzera beharko litzateke ikusi, ikastetxean edo eskolan, haur guziak pasatzen diren leku horretan, artea eta kulturarekin egin topaketaz zer gelditzen zaien. Hau da, lehen mailatik hasiz kolegiara eta kolegiotik lizeora zer arrasto utzi duen, bereziki, arrasto hori beharrezkoa baita haien eraikitze intelektualean, pertsonalean, sozialean eta herritartasunean. Oraindik egoera horretatik urrun gara. Ibilbidearen kontzeptua hor dugu, baina, dudarik ez da gehiago landu behar dela, eta, irakaslego eta arte eta kultura munduko eragileen arteko lotura indartu behar dela ere bai, dinamika berri batzuen sortzeko. Hau da, gisa bereko proiektuak proiektu orokor baten baitan kokatu behar dira, koherentzia oso batekin, lehen mailatik lizeorainoko ibilbidean.

- **Eskola transmititzeko lekua / antzerkia bera transmititzeko leku bilaka daiteke.**

Philippe Meirieu, frantses pedagogo eta idazleak idatzi zuen bezala « *Transmettre est un impératif ; ne pas transmettre serait une démission* ». Transmititzeak, haurra mundu komunean sartzen ahalbidetzen du. Kontsumoaren inguruan eraikia den gizarte batean bizi gara. Haurtzaroa merkatuaren parte bilakatu da. Geldirik egon ezin den gizarte batean bizi gara, berehalakotasuna aldarrikatzen duen gizarte batean. Eta hori pozoina da zenbait haurrentzat. Etengabeko erritmo bizi batean bizi dira egunero, pentsatzeari edo gogoetari denborarik utzi gabe. Gisa horretan, erritual artistikoa eraikitzailea, oinarrizkoa eta funtzeskoa da.



Aski da ikustea munduan barna hainbat herrialdek antzerkia irakasgai bakan eta berezi gisa txertatua dutela bigarren mailako ikastetxeetan. Hego Ameriketara, adibidez, antzerkia baldintza biziki gogorrekin irakatsia da, alta, fisika-kimika edo historia-geografia ikasgaiak bezain garrantzitsua da.

Antton Lukuk, idazle eta urte luzez Donibane Garaziko Navarre lizeoan antzerki proiektuen eramaileak dion bezala, eskola, kultura transmititzeko espazioa da. Non transmititzen / pasarazten dira musika, dantza, rapa, grafiti... ikastetxean ez bada ? Eskola da espazio hori.

Philippe Meirieu honela definitzen du kultura : « (...) « *la reliance* » entre ce qu'il a de plus intime à ce qu'il y a de plus universel. »

II. ANTZERKIA ETA GAZTEAK – NERABEAK :

Antzerkia komunikazio artea da. Emozio ezberdinen bidez ideiak adierazten, plazaratzen eta garatzen ahalbidetzen duena. Nerabezaroa garai berezia da, haurtzaroa utzi eta helduaroan sartu aitzineko etapa. Mundu osoaren aurkako iraultza ezti bezain nahasia den garai horretan, kontzientzia hartzeko tenorea heldu zaie, trakeski bada ere, nor diren eta nor izan nahi duten adierazteko garaia dute. Eta ikuspegi horretatik antzerkia bitarteko ideala da. Ez du teknika zailik eskatzen, ezta teknologiarekiko lotura berezirik ere, ezta ezagutza astunik ere, eskuragarri ez den deus, ez du eskatzen. Zenbait emazte, zenbait gizon, espazio bat eta denbora. Besterik ez.

Ez dizkiogu ikusle gazteari antzerki obrak ikusteko aukerak eskaintzen, pertsona gisa « hezteko » ezta ikusle « on » bat bilakatzeko ere. « Kalitatezko » obra batek eskaintzen ahal lituzkeen, plazer, emozio eta gogoetak bideratzeko baizik. Bere baitako begirada eta bide batez inguratzen duen munduarekiko duen begiradari buruzko hausnarketa egin dezan. Etorkizuna eraiki behar da eta behar dituzten tresnak eskaini behar zaizkie.

Baina, zer ote da, « ikusle gazte hori ? Nork osatzen ote du delako « gazte publikoa » ?

- **Zer da « haur gazte publikoa » (*jeune public*) ?**

Gazte publikoa nozioa aipatzen dugunean, definizio gabezi baten aitzinean aurkitzen gara. Hala da, « gazte publikoa » terminoaren definizio juridikorik ez da. Definizio eskas horrek, nolabaiteko lausotasuna sortzen du. Gazte publikoari zuzendutako antzerkiak mintzo garenean, usu, izendapen ezberdinak kausitzen ditugu : « publiko guziarentzat », « urtetik aitzina ».

60. hamarkada bukaeratik landa, orduko irakaskuntza metodoak zalantzan ezartzeak, berehalako ondorio konkretuak eragin zituen antzerkiaren bilakaeran. « Gazte publikoarekin » lan egiteko xedearekin hainbat konpainia sortu eta garatu ziren. Bihurgune horren adierazle ikusgarrien kopuruaren emendaketa izan da dudarik gabe. Formak eta edukiak handizki garatuz joan dira. Baina, beti ere, funtsezko galdera batekin : zerk, forman, edukian, idazkeran, jokoan, eszenografian, egituran... bermatzen du « gazte publiko » label hori bereizgarri gisa ? Identifikatze eztabaida hori, agor ezina den eztabaidagaia da, gaur egun ere bai.

Iduritzen zait, azken finean, haur-gazte publikoaren nozioa emeki-emeki, gaur egun arreta berezia eskatzen duten « haur ttipiei » hedatu dela. Adin kontua da. Gazte publikoa, nerabezaroaren atarian geldituko ote litzateke ?

Gazte publikoaz ari garenean, aditzera ematen du helduak nolazbait kanpo gelditzen direla edo laguntzaile gisa dutela beren lekua. Hala ez balitz, beste izendapen motak ageri dira : « *familian ikustekoa* » edo « *publiko ororentzat* ».

Batzuen iritziz, « gazte publikoa » « berria » den ikuslegoa da. Hau da, sekulan antzokira etorri ez den ikuslea. Kasu horretan, haur bat zein heldu bat izan daiteke. Hortaz, « gazte publikoaz »

mintzatzeak ez dio bortxaz adin zehatz bati erreferentzia egiten.

Halere, « haur-gazte publiko » edo dena delako izendapena izanik ere, argi da antzerkia eta dramatizazioa funtsezko lanabesak direla eta gaitasun anitz lantzeko baliagarri direla, irakaskuntzan ere bai.

- **Zergatik antzerkia eskolan ? Ekarpen ezberdinak.**

Arte eszenikoek oro har haur eta gazteen formakuntza pertsonal, intelektual nahiz kulturean leku eta eragin handia dute. Badakigu antzerkia, adibidez, irakaskuntzarako tresna izateaz gain, ikasleen arteko elkarbizitza sustatzeko ere balio duela. Antzerkigintzak badu magia bat bere baitan. Gure burua ezagutzeko eta gure buruaz gozatzeko parada ematen digu, are gehiago nerabezaro garaian eta eskolak osatzen duen espazio horretan.

Ekarpen ezberdinak :

- **Hitza eta gorputza, adierazpen tresnak** : presentzia, gorputzaren kudeaketa. Komunikatzeko egoera ezberdinen lanketa. Adierazpen askatasuna eta barne mundua adierazteko urratsak eskura jartzea.
- **Jokoa** : inprobisaketaren bidez bizitzen den espermentazioa. Pertsonala den zerbait aurkezteko arriskua hartzea.
- **Sormen lana piztu** : gaztea berarentzat ezezagunak diren eremuen arakatzea. Bere pertsonalitatea, bere sentiberatasuna eta bere izpiritu sortzailea garatzeko bidea eskaintzen du antzerkiak.
- **Hizkuntza eta testu idatzien lanketa** : gazte batek ikasgelan Shakespeare-en testu bat irakurriko balu, etxeko kanapean telebistari so balitz bezala iritsiko litzaioke, hau da, modu eta harrera pasiboan. Aldiz, testu hau bera, bere gorputzarekin taularatuko balu, harrera aktiboagoa luke. Antzerkiak aktiboa izatea eskatzen du. Antzerkiak, gaztea bultzatzen du testua alde guzietara lantzen, beretu arte.

Esaldi batek, doinu, ahoskera, keinu edo jestuen arabera ukan dezakeen eragin ezberdinaz jabetzen delarik gaztea, hizkeraren konplexutasuna ulertzen ahalbidetzen du.

- **Norbanakoa eta taldearen garapena** : elkarbizitza, elkar laguntza, elkar entzutea, bestearekiko errespetua, funtsekoa gaitasunak beretzen eta garatzen laguntzen du.

Gaur egun ikusten dugunaren arabera, kasu egin behar dugu izpiritu artistitiko horren atxikitzea, animazioan erori gabe. Animazioa, sormen artistikotik kentzen den zati bat da. Biziki konkretua eta artisanala den arte horrek (antzerkigintzak), birtuala nagusi den mundu batekin egiten du kontrapisua.



Antzerkiak irakaskuntzan berez, gaztearengan eragiten dituen ekarpenez gain, ikus-entzule ideki, abenturazale, curiosak eta kritikoak formatzea du xede ere bai. Antzerkia arte hibridoa da, diziplina anitz gurutzatzen diren arte bat. Ondorioz, manera edo bide ezberdinen bidez lantzen ahal da, arte ezberdinetaz hurbilaraziz gazteak. Bistan dena, ez ditugu denak antzokietara eramaten ahal

edo behartzen ahal. Penagarri dena da, artearen munduan sartzeko aukerarik gabe gelditzen direnak. Ez da manera bakar bat gazteak arteari sentsibilizatzeko, baizik eta anitz. Berdin dio zer atetik sartuko den, garrantzitsuena da gazte bakoitzari talka emozional, talka artistiko eta artearekiko lotura afektiboa gauzatzeko aukera eskaintzea. Ikustea besterik ez da, aurtengo Momix festibalean proposatutako eztabaidagaia : « *Les utopies de la jeunesse aujourd'hui : le spectacle vivant participe-t-il à la construction d'identité ?* ». Testuinguru horretan, arteek handitzen laguntzen ote gaituzte : norbera eta gizartearekiko lotura bermatzen ote dute ?

Horregatik bakarrik, ikastetxeetan antzerki proiektuak bermatu eta garatu behar dira. Antzerkiak gizarteaz hitz egiteko aukera ematen du eta ikasle kritikoak hezteko baliagarria da. Helburua ez da aktoreak sortzea, baizik eta dramatizazioak ematen dizkigun tresnak erabiltzea prozesu-hezitzaile bat garatzeko, eskolako curriculumean txertatuta eta ez eskolaz kanpoko jarduera gisa baitezpada. Nerabeekin garrantzitsuena da beraiek senditzea zerbait eraikitzen ari direla.

Bestalde, dudarik ez da antzerkiak, euskara, intentsitate handiagoz bizitzeko balio duela. Dramatizazioaren bidez molde natural batean erabiltzeko eta ahozkotasuna garatzeko bidea eskaintzen du. Euskaraz, adierazpena lantzeko ezinbesteko baliabidea da. Gogoeta honen parean, gazte publiko honi proposatzen zaizkion sorkuntzak, euskaraz, dimentsio biziki garrantzitsua hartzen dute ikasle hauen ibilbidea aberasteko eta eraikitzeko, haurtzarorik gaztarora. Egia da, gaur egun ikuslego honi zuzendutako euskarazko antzerki, dantza, zirku edo txotxongilo arloetako eskaintza murriztua gelditzen dela hainbat arrazoiengatik. Euskal ikasle kopurua handitzen ari da urtez urte, eta eskari honi molde egokian eta kalitatezko lanekin erantzun behar zaio. Funtsean, hori da KIMU programaren funtsezko oinarrietako bat.

Atal honekin bukatzeko, Pilar Lopez Gasteizko Teatro Paraíso konpainiaren arduradunak Donostian 2017ko urtarrilaren 24an, *Haurrentzako antzerkiari buruzko lan-jardunaldia* ekitaldian errandakoa ekarri nahi nuke. Hau da, *haurrentzako edo gazteentzako antzerkiaz ari direnean, ez direla ari sektore ekonomiko batez, hau da, egia da hori guztia aurrera eramateko ekonomia ezinbestekoa dela, baina alfabetatze kulturala edo herritarraren eskubidea artez eta kulturaz hornitzeko ezinbestekoa dela.*

III. IKUSITAKO ETA BIZITAKO ESPERIENTZIEN OIHARTZUNA :

KIMU programak iraun dituen bederlatzi hilabete horietan ikusitako eta bizitakoak eraman dudan hausnarketarekin uztartu nahi nituzke. Egia da ene gogoeta gehienbat irakaskuntzari lotua bada ere, arlo horretan bizi izandako esperientzia aipatu aitzin, nahi izan dut ikusi zein leku ematen zaien ikusle gazteei antzerki festibal edo topaketetan. Horretarako, lehenik, parte hartu dudan Avignon festibala eta La Mostra d'Igualada festibala hartuko ditut hizpide, Baionako Etxepare lizeoarekin eramandako proiektuekin bukatzeko atal hau.

- **La Mostra d'Igualada – Fira de teatre infantil i juvenil – 2018ko apirilaren 12-15**

Festibal honen izenak dion bezala, La Mostra d'Igualada, haur eta gazteei zuzenduriko antzerki topaketa da. Aurten 29. edizioa antolatu dute, Katalunia osoko arteen azoka nagusi bilkatua da engoitik. 600 proiektu baino gehiago aurkeztu dira aurten, 36 000 ikusleren aitzinean. Adin ezberdinen arabera osaturiko 4 ibilbide nagusi eskaintzen dituzte :

1. ibilbidea : 3-6 urtekoentzat .
2. Ibilbidea : 6-12 urtekoentzat.
3. Ibilbidea : 12-18 urtekoentzat.
4. ibilbidea : publiko ororentzat.

Ibilbide bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta adinaren arabera eskaintzak egiten dira : objektu antzerkiak, txontxongiloak, zirkua, testurik gabeko antzerkia... eskaintza anitza eta zabala eginez. Gisa horretan adinaren arabera haur eta gazteek beren menua osatzen ahal dute, gustuen arabera eta noski, gurasoen laguntzarekin.

12-18 urte bitartekoentzat, ikusgarriez gain hainbat ekintza eta ikastaro pentsatuak dira. Hau da, gazteek, ikusle soilak izateaz gain, antzerki munduan murgiltzeko parada badute haiei zuzenduriko gune berezi batean (« *La Mostra Jove* »). Inprobisaketa tailerrak, lasaitze guneak, mahainguruak, kontzertuak... programatuz.



- **Avignon-eko festibala – 2018ko uztailaren 6-29**

« *Mila ikusgarri, mila emozio* », hara zein izan den aurten Avignon-eko Off-eko festibaleko lema nagusia. Mila ikusgarri, programa osatzen duen liburuxka (edo liburu potoloa) ikustea besterik ez da. Aspaldi oihartzun handia duen festibal honek haur eta gazteei leku berezia eskaintzen die duela zenbait urte jadanik. Bai, programazioan eskaintzen dituen ikusgarrien bidez (antzerki, zirku, txontxongilo...) baita programa edo egonaldi ezberdinen bidez ere, ikusle gazteak kondutan hartzen eta laguntzen dituen hainbat eskaintza bada (« *Guide du jeune spectateur* » gida urtero zabaltzen dutena bezala).

Horien artean, **CEMEA** (centre d'entraînement aux méthodes d'éducation active) eta Nord-Pas-Calais-eko eskualdearen arteko proiektua aurkitzen da. Elkarlan horri esker aurten 160 lizeotarrek parte hartu dute festibalean. Izan, lizeo orokorreko ikasleek, zein, lanbide heziketakoek. Bi publiko ezberdin hauen topaketa anitza bezain aberatsa izan ohi da. Haien presentziak, urtero elkarren ondoan egoten diren baina elkar ezagutzen ez duten bi publiko juntatu ditu. Gisa horretan, festibaleko testuinguru horretan, nahasketa eskolarra, soziala, kulturala eta geografikoa ere bai ahalbidetu du. Hainbat gaztek, lehen aldikotz, ezagutu dituzte antzerki baten ikustera joatean errespetatu beharreko kodeak : diskrezioa, isiltasuna, entzumena, telefono mugikorra itzaltzea, txaloak ikusgarri bukaeran...

Ikusgarrien ikustea (In eta Off-eko programazioan), profesionalekin topaketa (antzerkilari, zuzendari...) eta hilabete batez festibalari zuzendua zaion Avignon hiriaren ezagutza. Hiru ardatz hauek osatzen dute lizeotar horiek ikusle bilakatzeko plantan eman den ibilbidea.

Proiektu honetaz gain, Hezkunde Nazionalak, DRACen partaidetzarekin eskualde horretako 120 ikasleri festibalean parte hartzeko aukera eskaintzen diete. 5 eguneko egonaldi honetako xede nagusiak :

- kultur ikuspegia zabaldu
- sorkuntza garaikideari lotuak diren antzerki forma ezberdinei hurbildu.
- Ikusgarriak ulertzeko behar diren gakoak eskaini.
- Izpiritu kritikoa zorrotzu.

Lizeoko bigarreneko eta leheneko ikasleak lehenetsiak dira, proiektu hau ondoko ikasturtean luzatzeko gisan. Artitsa batekin, antzezlan baten inguruko tailer / topaketa bat antolatzeko parada izaten da. Dударik ez da, irakasleek ikastetxean prestakuntza lan bat eraman behar dutela proiektu interesgarri honi ahal bezain bat etekin ateratzeko.



- **Baionako Etxepare Lizeoko proiektuak**

Eneko Sagardoik aktorearen erranekin bat eginik, hona ekarri nahi nituzke : « (...) *Horregatik tematzen naiz umetan artea hurbiletik bizitzearekin ; eskolan integratuta ikusten baduzu modu paraleloan emango diozulako garrantzia.* » BERRIA – 18/09/09

Hau da, antzerki festibaletan gero eta leku eta presentzia gehiago egiten bazaie gazteei, dudarik ez da Eneko Sagardoik zion bezala, « eskolan » ere toki egin behar zaiola antzerkiari eta arteari oro har. Ikastetxea eta ikastetxetik kanpoko lotura hori ahal bezain naturalki egin dezaten, hots, plazerez eta ez bortxaz edo konpromisoaz.

Etxepare lizeoan eramaten diren proiektu ezberdinei esker, azken urte hauetan gero eta garrantzia handiagoa hartzen ari du antzerkigintzak hezkuntza proiektuan.

Antzerkigintzak hiru sarbide ditu gure lizeoan :

- **Antzerki tailerra** : duela orai lau urte sortu zen tailerra. Klase orduetatik kanpo eskaintzen den jarduera da, nahiantei idekia. Hortaz, maila ezberdinetako ikasleak biltzen dira tailerrean astero bi orenez. Urte osoan landutako sorkuntza ikasle, guraso / publiko zabal baten aitzinean aurkezten dute. Urtez urte arrakasta duen tailer hau lizeoaren erakuslehi bilakatu da.
- **Antzerki egonaldia lizeoan** : joan den urtean (2017/2018 ikasturtean) esperientzia interesgarri eta aberasgarria bizi izan genuen. Axut ! Kolektiboa eta Le PTDP konpainien *Zazpi Senideko* obra errezibitu genuen gure lizeoan. 3 egunez, gure ebaluaketa gela antzoki bilakarazi ondoan, Ximun eta Manex Fusch anaiek 6 aldiz aurkeztu zuten haien sorkuntza berria lizeoko ikasle guzien aitzinean (300 ikasle). Gure ikasleetat gain, Baionako Villapia lizeoko sare elebiduneko ikasleak gomiatu genituen ere bai.

Sekulako abentura izan zen. Bai ikasle/irakasleontzat baita artistentzat ere. 3 egunez giro berezi batean murgildu ginen, artista/ikasle arteko hurbiltasuna eta harremana handituz. Zuzeneko mediazioak eta elkarrizketak eginez, zuzeneko harremana sortuz. Proiektu honetan Euskal Kultur Erakundea eta Baionako Hiriak bat egin zuten. Joan den urteko esperientzia baikorra ikusirik, aurtengo ikasturtean abentura berritzeko prest gara hiru partaideak.

2019ko otsailaren 4-8ko aste horretan, Artedrama konpainiaren *Hozkailua* lana errezibituko dugu. Aurten ere antolaketa bera gauzatzeko asmoa dugu, hau da, lizeoko ikasle guzietan eskaini antzerkia baita Baionako Villapia eta Cassin lizeoetako ikasei ere.

- **SNSA** Baionako antzokiarekin hitzarmena : duela hainbat urte orai Baionako Antzokiarekin (SNSA) elkarlana eramaten dugu proposatzen dituzten hainbat proiektuan parte hartzeko. Proiektu gehienak euskaraz ez badira ere, ikasleek oro har antzerkigintzari buruzko hainbat alor landu ahal izan dituzte, beti ere antzerki munduari ateak zabalduz. Ikasturtean barna Baionako eta Angeluko antzokietan programatuak diren hiru antzezlan hautatzen ditugu ikasleekin. Obra hauen emanaldiak gauez eskainiak direnez, klase orduetatik kanpoko ateraldiak dira. Helburua, gazteak antzokietara eramatea da, ikusgarrietaz gozatzea eta mundu artistikoarekiko sentsibilizatzea. Gisa bereko proiektuak aberatsak dira. Ikasleak ez baitoaz « eskolarrei » bakarrik zuzenduriko emanaldietara. Gisa horretan, publiko homogeno baten alde egin ordez (ikasleak/gazteak bakarrik), « publiko orori » zuzenduak diren ikusgarrietan parte hartzearen hautua egin dugu, « ghetto » itxura saihesteko asmoz. Obren ikusteaz gain, ondotik edo lehenagotik klasean berean lantzeko aukerak ematen ditu : zuzeneko topaketak, mediazioak eta idazketa/tailerrak antolatuz artistekin. Bukatzeko, Miarritzeko Biarritz Culture egiturak euukaraz eskaintzen dituen emanaldietan ere parte hartu ohi dugu.

Ikerketa lan honen bigarren atalean aipatu bezala, desmartxa hauek ekarpen eta eragin handia dute gazteen baitan. Hona zehazki Etxepare lizeoan antzerkigintzaren inguruan eramandako proiektuek eta bereziki antzerki tailerrak ondorioztatu dituen zenbait ekarpen :

- Euskarari:
 - Dударik ez da gisa bereko garapenak euskarari arnasmune berri bat eskaintzen diola lizeoan. Ikasleek euskaraz gozatzeko eta jostatzeko parada berri bat baitute.
- Ikasleari:
 - Ikasleei antzerkiaren inguruko ibilbide artistiko bat eskaini. Antzerkiak euskal kulturaren eta literaturan duen lekua ezagutarazi (antzerki amaturra / profesionala)
 - Antzerkilari, idazle, teknikari, taula zuzendariarekin elkar trukatzeko bat sortu. Ofizio horien ezagutza eta bide batez, arlo horri lotutako ikasketa bide ezberdinak ezagutu.
 - Ikasleak ikusle bilakarazi: antzerki baten ikustera eramanez.
 - Antzerki mota ezberdinen kultura eskaini: karrikako antzerkia, antzerki profesionala/amaturra, txontxongiloak, zirkoa...
 - Antzerkia eta beste arlo artistikoen arteko (musika, artea, bertsolaritza, dantza...) zubi lana bultzatu.
 - Antzerki tailerrak: ahozko adierazpena eta erregistro ezberdinen inguruko lanketa (testuan euskalki ezberdinak landuz). Taldekideen aitzinean nahiz jendaurre zabalago baten aitzinean aritzea. Gaitasun hauek baliagarriak eta lagungarriak izan daitezke ikasleek Baxoa edo EGA azterketari begira ahozko etsaminak prestatzeko eta pasatzeko mementuan.
 - Ikaslearen kurrikulumean agertzeko aukera eskaini.
 - Ikusten eta lantzen ditugun antzerki obren bidez, ikasleari gaurko eta iraganeko problematikei buruzko gogoeta baten eramateko parada eskaini.

Atal honekin bukatzeko, dudarik ez da gazteak antzerkiarekin buruz buru jartzen segitu behar dugula. Ikasgelan berean, ikastetxean berean eta antzokietan ere bai. Hiru espazio horiek sinbolikoak baitira, gazteek beharrezkoak dituzten transmisio guneak.



Etxepare Lizeoko antzerki tailerreko ikasleak – Ero ? antzezlanak

IV. PROIEKTUA : ANTZERKI UDALEKU EGITASMOA :

KIMU programak iraun dituen bederatzi hilabete hauetan ikusitako, bizitako eta ikasitako hainbat bizipenen ondotik eta gazteak/antzerkigintza bikotea indartzeko xedearekin, transmisio gune berri bat proposatzera nator : antzerki udaleku egitasmoa.

- Ildo nagusiak :

Etxepare lizeoan duela lau urte abiatutako antzerki tailerrari jarraiki, Seaskako haurrei eskola denboratik kanpo euskaraz antzerki egonaldi labur baten eskaintzea luke xede nagusia proiektu honek.

Oporretaz baliatuz, Seaskak, Mus, errugbi edo zango baloi ikastaroak eskaintzen dituen bezala, antzerkiaren inguruko egonaldi bat eskaintzea interesgarria izan daiteke. Seaskak begi onez ikusten du proiektu hau. Seaskako kolegioetako gazteei (3.koak) proposatuko litzaieke. Partaide kopuru mugatu batekin (12 ikasle).

Helburu nagusia, lau egunez antzerkiaren munduan murgiltzea eta arte horrekiko lehen hurbilpen baten egitea litzateke, AMA-2 elkartearen eskutik (AXUT ! kolektiboaren laguntzarekin). Antzerki ikastaroa eskaintzeaz gain, Luhusoko Harri Xuri antzerkiaren bisita eginen genuke, alderdi teknikoak ezagutzeko (teknikari batekin). Ikastaroa giro berezi batekin bukatzeko, azaroaren lehenean Larresoron urtero bezala, Hameka Euskaraz euskaraz egiten diren antzerki emanaldian parte hartuko dugu. Bertan, 3 obra ikusteaz gain, Metrokoadroka taldeko Iñaki Ziarrusta artistarekin elkartzeko aukera izanen dugu.

- Datak / Lekua :

Ikastaldia Kanboko Seaskako egoitzan iraganen litzateke (edo ondoan den Xalbador Kolegioan), urriko oporretako bigarren astean, 2018ko urriaren 29-30-31n eta azaroaren 1ean Larresoron.

- Egitaraua:

	Urriaren 29a	Urriaren 30a	Urriaren 31	Azaroaren 1a
9:00-12:00	Antzerki ikastaroa	Antzerki ikastaroa	Antzerki ikastaroa	
12:00-14:00	BAZKARIA - PAUSA			
14:00-17:00	Luhusoko Harri Xuri gelaren bisita (alderdi teknikoa: eszena tokia, argiak, soinua...)	Antzerki ikastaroa	Manex Fusch-ekin topaketa (Axut! kolektiboa)	Larresoron – Hameka Euskaraz 15:00: <i>Inondik inora</i> 16:30: <i>Kale-gorrian</i> 18:30: <i>Miss Karaoke</i> Metrokoadroka taldeko Iñaki Ziarrusta artistarekin elkarrizketa.

- Partaideak :
 - AMA-2 konpainia: egonaldia antolatu eta kudeatuko luke.
 - SEASKA : Seaskak bere gain hartuko lituzke :
 - Seaska egoitzako gelen erabilpena bermatzea.
 - Ikastaldiaren berri kolegioetara zabaltzea + izen-emateen kudeaketa.
 - Eguerdiko bazkarien kudeaketa.
 - Hameka Euskaraz :
 - Harri Xuri gelaren bisita.
 - Hameka Euskaraz, Larresoron azaroaren 1ean.

Azkenik, proiektu hau Euskal Kultur Erakundeari eta Herri Elkargoari aurkeztua izan zaie.

V. AZKEN HITZAK :

Hezkuntza antzerkian edo antzerkia hezkuntzan gaiez baino haratago, antzerkia eta hezkuntzaren arteko elkarlana beharrezkoa da etorkizunari begira. Elkarlan horretan, antzerkia ez litzateke gehiago heziketarako balioko lukeen baliabide edo tresna soila, baizik eta hezkuntzaren baitan leku legitimo bat hartuko luke, munduarekiko hurbilpen estetiko eta emozioak guztiz adierazteko gisan.

Antton Lukuren erranekin bat eginez, « *Antzerkia zerbait intimoa da. Antzerkira zoaz nahi duzulako* ». Intimotasun horrek oihartzun oraino handiagoa du gazteekin elkartzen denean, beren barne gatazketan murgiltzen ari direnean. Preseski, antzerkiak, sorkuntza eta gogoetaren bidez barne gatazka horiek funtsgabeko kalapitak bilaka ez daitezela laguntzen du.

Olatz Beobide antzerkilariak elkarrizketa batean zion, « *Askotan esaten dute : 'Antzerkia zertarako ?'. Ba, berdin du zertarako. Musikak edo dantzak bai, baina antzerkiak ez du prestigiorik umetan.* » Bertsolaritzan, adibidez, batzuek lan handia egin dute bertsolaritzari prestigioa emateko : bertso eskolak, bertso udalekuak, artxibo zentro bat... Euskal antzerkigintza doi bat mainguru dabil alde horretatik. Egia da, egitura eta elkarre ezberdinak badirela horretan lanean, baina, beti ere behar diren baliabideak (ekonomikoak bereziki) ez dira plantan emanak.

Gogoeta honekin bukatzeko, André Malraux idazle eta politika gizonak 1966ko urriaren 27an Legebiltzarrean kulturaren aurrekondua aurkeztu zuenean errandakoa partekatu nahi nuke : « *Il s'agit de faire ce que la III République avait réalisé, dans sa volonté républicaine, pour l'enseignement ; il s'agit de faire en sorte que chaque enfant de France puisse avoir droit aux tableaux, au théâtre, au cinéma, etc., tout comme il a droit à l'alphabet.* »

Guk ere, Euskal Herriko haurrei, euskal ikasle kopurua handitzen ari den une honetan, haien ibilbidea eraikitzeko eta aberasteko tresnak eskaini diezaiegun. Eman diezaiegun, antzerkiari eta euskarari merezi duten eta behar duten lekua.

Le chemin du théâtre

Philippe Meirieu

C'est presque toujours pareil: au moment de partir, j'hésite un peu. Si on ne se secoue pas, on reste chez soi, devant l'écran de l'ordinateur ou de la télévision. Là, au moins, pas d'inquiétude: si le spectacle est mauvais, on peut changer de chaîne ou chercher ailleurs. Pas de crainte de s'ennuyer. Pas la peine d'attendre que tout le monde soit là et que la salle s'éteigne. Aucun danger que les acteurs aient oublié leur texte! Mais ce sont les acteurs, justement, qui me décident à sortir et à prendre le chemin du théâtre. Je les imagine qui entrent par la petite porte de derrière et rejoignent leurs loges. Ils sont inquiets, même s'ils fanfaronnent un peu. Ils se mettent en costume et puis s'assoient et ferment les yeux: ils refont tout le spectacle dans leur tête pour être bien prêts. Il leur faut changer de peau. Se laisser habiter par un autre. Créer, sur la scène, un monde nouveau... Je les imagine, tendus tout entiers, comme des champions de saut à skis avant de s'élancer du tremplin. Prêts à sauter dans le vide. À s'engouffrer dans le trou noir de la scène. Ce qui se passe là n'a pas son équivalent en électronique, ce n'est pas un jeu vidéo. Des hommes et des femmes vont faire exister, devant moi, un univers infiniment fugace. Un univers construit avec leurs voix, leurs gestes et leurs regards.

Un château avec des allumettes, des brindilles et des bouts de rien comme décor. Un château qui peut s'effondrer au premier faux pas. Et qui disparaîtra, de toute façon, avec eux sans laisser d'image sur une pellicule ou un DVD.

Pendant un moment, il va se passer quelque chose de vraiment étrange: je vais m'installer dans mon fauteuil et fixer cet espace, là devant moi, où chaque objet et chaque mot comptent. Sur la scène, les gens ne gesticulent plus dans tous les sens. Tout ce qu'ils font, tout ce qu'ils disent est minutieusement calculé. Il faut que ça tombe juste. Que leur histoire prenne corps et m'envahisse tout entier. Je vais vivre un moment magique, éphémère et infiniment précieux. Parce qu'en réalité, c'est moi qui suis là sous mes propres yeux: c'est moi cet homme avec un vieux pardessus et une valise à la main qui cherche son chemin sur cette terre. C'est moi cette femme qui crie sa révolte contre une guerre qu'elle ne comprend pas et qui lui a pris son fils. C'est moi cet enfant qui a peur d'un monde menacé par des machines devenues folles. C'est moi qui suis avare et jaloux, capricieux et ridicule. C'est moi qui saute de joie au retour de l'ami et pleure à la mort de l'être aimé. C'est moi qui veut résister face au danger, mais c'est moi, aussi, qui veut fuir. C'est moi qui ment et c'est moi qui exige la vérité. Toutes ces émotions, tous ces sentiments, toutes ces contradictions, je savais bien qu'elles étaient en moi. Je les avais ressentis ou pressentis un jour ou l'autre, mais sans bien parvenir à les nommer. Il a fallu qu'on les mette devant moi, là sur la scène... il a fallu que des êtres de chair et de sang les incarnent sous mes yeux... pour que je comprenne enfin que tout cela m'habite vraiment. Il y a plus que du plaisir à cela: de la joie. La joie de sortir du brouillard: quand, tout à coup, on découvre qu'on n'est pas perdu, quand on trouve des repères et le soleil arrive. Et puis, la joie, aussi, de ne pas être tout seul: la scène, c'est moi... mais ce sont également les autres. Elle nous relie ensemble. Nous tous, nous sommes

concernés par ce qui se passe devant nous. Nous le regardons en silence. C'est une solidarité discrète. Et peut-être l'espérance d'un monde meilleur où les hommes et les femmes se sentiront plus proches les uns des autres. Décidément, j'ai bien fait de sortir de chez moi, de ne pas rester devant l'écran de mon ordinateur ou de ma télévision.

VII. BIBLIOGRAFIA :

- **Artikuluak :**

- « *L'éducation artistique et culturelle : une pédagogie de l'ébranlement* », Philippe Meirieu, «LA SCENE» aldizkaria, 72. zenb., 2014ko martxo-apiril, 28-33.or.
- « *Théâtre et transmission* », Philippe Meirieu, www.meirieu.com.
- « *Enseigner le théâtre au collège et au lycée aujourd'hui* », Olivier PY, 2009ko abenduaren 4an emandako hitzaldia.
- « *Le théâtre pour ados, un théâtre à part... entière ?* », Emile Lansman, 2008ko iraila, JEU aldizkaria.
- « *Antzerkia eta dramatizazioa, irakasteko lanabes* », 2016-07-15, www.hikhasi.eus.
- « *Fikziozko larruak bizibide* » artikulua, Olatz Beobide eta Eneko Sagardoi-ri elkarrizketa, BERRIA, 2018ko irailaren 9a.

- **Aldizkariak-liburuak :**


- *Théâtre(s)* aldizkaria : 13.zenb. 2018ko martxoa.
- *Théâtre(s)* aldizkaria : 9.zenb. 2017ko martxoa.
- *Théâtre(s)* aldizkaria : 2.zenb. 2015eko ekaina.
- *Théâtre(s)* aldizkaria : 1.zenb. 2015eko martxoa.
- *La scène – Le spectacle jeune public (histoire et esthétique)*, Millénaire presse, 2016.
- *Horizons/Théâtre, Théâtre et éducation, Partage, enjeux, avenir*. 2012 urria/2013ko martxoa. Presse Universitaire de Bordeaux.

- **Beste :**

- *Haurrentzako antzerkiari buruzko lan-jardunaldia : eguneko kronika txostena*. Donostia 2017ko urtarrilaren 24a.

KIMU 2018

VIII. IKUSGARRIAK ETA FORMAKUNTZAK



FESTIBALAK – TOPAKETAK :

HARTZARO FESTIBALA (Uztaritze – Lapurdi) – 2018ko otsailaren 3tik 13ra

- *Biolina bihotzetik* (Jon Garmendia – Ortzi Oiharzabal)
- *Ez dok Hiru ! Euskal musikaren benetako historia* (Tartean konpainia)

XIII. ARTEDRAMA TOPAKETAK (Aulesti – Bizkaia) – 2018ko apirilaren 2tik 7ra

- *Zazpi senideko* (Axut ! - Artedrama – Le PTDP)
- *Lekeitioak* (Mizel Théret)
- *Adarretatik zintzilik* (Gilkitxaro)
- *Oingoan bai !* (Nisune)
- *Agur eta dolore* (Miren Gaztañaga / Iraia Elias)
- *Besaulkiak* (Abarka antzerki taldea)

LA MOSTRA d'IGUALADA (Katalunia) – 2018ko apirilaren 13tik 15era

- *Flou Papagayo* (Mumusic Circus)
- *Pop up* (Teatro delle Briciole)
- *Mur* (Cia 3)
- *Amour* (Marie de Jongh)
- *El meu princep blau* (El ballet imperial de la reina)

ELEPIKA FESTIBALA (Kanbo – Lapurdi) – 2018ko apirilaren 18tik maiatzaren 5era

- *Zuek* (Rouge Elea konpainia)
- *Irakurriz* (Shakti Olaizola)

UMORE AZOKA (Leioa – Bizkaia) – 2018ko maiatzaren 20an

- *Kale gorria* (Barsanti konpainia)
- *Etxea* (Aimar & Cia)
- *Enva* (Amer i Africa Circ Cia)

AVIGNON-eko FESTIBALA (Avignon – Frantzia) – 2018ko uztailaren 14tik 19ra

- *Réfugiée poétique* (Claire Ducreux konpainia)
- *Les idiots* (La Capsule kolektiboa)
- *Lobby* (Tie Break konpainia)
- *AkroPercu* (AkroPercu konpainia)
- *Zwäi* (cie Einz)
- *Les Voyages Fantastiques (de Jules Verne à Méliès)* (Les Trottoirs du hasard konpainia)
- *Gil Alma* – 100% naturel

FESTIVAL INTERNACIONAL SANTANDER (FIS) (Santander) – 2018ko agorrilaren 22a

- *Pedro y el lobo* (Compañía Etcétera)

ABIAN ! (Uztaritze – Lapurdi) – Irailaren 13tik 15era

- *Bidea* (Jour de Fête Compagnie)
- *Acousteel Gang* musika taldea
- *Boxon (s), jusqu'à n'en plus Pouvoir* (LE PTDP)
- *Music on Cycle* (LaDinamo taldea)
- *A corps perdus* (Bivouac)

BESTE IKUSGARRIAK :

- *Duo dodu* (Théâtre de Cuisine) (Le Colisée - Miarritze – Lapurdi) – 2018ko otsailaren 7an
- *Zazpi senideko* (Axut ! Kolektiboa – Le PTDP – Artedrama) – (Larزابale – Behe Nafarroa) – 2018ko martxoaren 8an.
- *Boxon (s), jusqu'à n'en plus Pouvoir* (LE PTDP) (Baionako antzokia - SNSA – Lapurdi) – 2018ko otsailaren 27an Etxepareko ikasleekin.
- *Izpiliku sasi gibelean gordeturik, Cyranok lixibaren usain ona zuen* (Hecho en Casa) (Le Colisée - Miarritze – Lapurdi) – 2018ko martxoaren 19an, Etxepareko ikasleekin. *Harri batez lau xori* festibala kari.
- *Pavillon noir* (Collectif Os'o) (Baionako antzokia - SNSA – Lapurdi) – 2018ko apirilaren 5ean, Etxepareko ikasleekin.
- Etxepare lizeoan (Baiona) antzerki egonaldia : *Zazpi senideko* (Axut ! kolektiboa – Le PTDP – Artedrama) : 2018ko martxoaren 28-29-30.
- *Sagartu* (Hika Teatroa) – (Andoiaian – Gipuzkoa) - 2018ko irailaren 22an.
- **Ero ?** antzerkia. Etxepare Lizeoko antzerki tailerraren obra : 2018ko maiatzaren 31n (Baiona – Glain ikusgarri gelan), ekainaren 28an (Baigorri – EHZ festibala), irailaren 6an (Larresoro – Herriko sala)



Ero ? antzerkia – Etxepareko ikasleak

FORMAKUNTZA :

ADEL 18 – ARTEDRAMA EUSKAL LABORATEGIA – 2018ko apirilaren 2tik 7ra – Aulesti (Bizkaia)

Formatzaileak eta edukiak :

- Ander Lipus : *Aktorearen dantza* (8 ordu)
- Aiora Sedano : *Hemen eta orain* (8 ordu)
- Oier Guillan Bermudez / Javier Barandiaran : *Tartean dauden gorputzak* (8 ordu)
- Pako Revueltas : *Ongizatea eszenan. Testuekin jolasean* (8 ordu)
- Iraitz Lizarraga : *Desoreka* (8 ordu)
- Mizel Th  ret : *Bakarrik dantzatzea, bakarrik sentitu gabe* (8 ordu)

AHOZKO KOMUNIKAZIOA ERRAZTEKO TEKNIKAK – 2018ko irailaren 20an – Donostia (Gipuzkoa)

Formatzailea : Amagoia Lauzirika (aktorea eta komunikazioan entrenatzailea)

Edukiak :

- Nerbioen kontrola, erlaxazioa eta kontzentrazioa.
- Ahoskera, abiadura, etenaldiak, doinua, bolumena...
- Gorputz-mintzaira: begirada, eskuak, keinuak, energia...

TOPAKETAK – ELKARRIZKETAK :

- *Le th  atre    l'  cole* kolokioa – Bordalen, 2018ko urtarrilaren 11n.
- Ximun Fusch, *Axut !* Kolektiboko kidearekin, Baionako Etxepare Lizeoan 2018ko martxoaren 28an.
- Thierry Lolom, Uztaritzeko San Josepe Lizeoko frantses irakaslea eta antzerki tailerraren kudeatzailea (Uztaritzen, 2018ko ekainaren 11n).
- Antton Luku, idazlea eta Donibane Garaziko Navarre Lizeoko euskara eta antzerki irakasle ohia (Kanbon, 2018ko irailaren 17an).



KIMU IRUDITAN....

Agur eta dolore




Réfugiée poétique



Sagartu



Irakurriz



Pedro y el lobo

**Izpiliku sasi giblean gordeturik,
Cyrano-k lixibaren usain ona zuen**





ELEPIKA ERROBIKO EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN FESTIBALA
 LE FESTIVAL DE LA LANGUE ET DE LA CULTURE BASQUE
 DU TERRITOIRE ERROBI
 2018KO APIRILAREN 18TIK MAIATZAREN 5ERA // DU 18 AVRIL AU 5 MAI 2018

